

**Fiskalizazio Txostena**  
**Informe de Fiscalización**

**Urola Erdiko**  
**Mankomunitatea**

**Mancomunidad de**  
**Urola Medio**

**1999**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas



## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>ONDORIOAK</b> .....	<b>4</b>
I.- Legezotasuna betetzea.....	4
II.- Kontularitzako alderdiak.....	5
III.- Finantzen analisia.....	5
IV.- Kudeaketari buruzko alderdiak eta gomendioak.....	6
<b>INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>8</b>
<b>CONCLUSIONES</b> .....	<b>9</b>
I. Cumplimiento de la legalidad.....	9
II. Aspectos contables.....	10
III. Análisis financiero.....	10
IV. Aspectos de gestión y recomendaciones.....	11
<b>ANEXOS</b> .....	<b>13</b>
A.1 Análisis de la contratación.....	13
A.2 Cuentas anuales y plantilla.....	14

Vitoria-Gasteiz, 2000ko azaroaren 10a  
Vitoria-Gasteiz, 10 de noviembre de 2000



## SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, bera araupetzen duen 1/88 Legean finkatutakoari jarraiki, Urola Erdiko Mankomunitateak 1999ko ekitaldian izan duen ekonomia-finantza jarduerari buruzko txosten hau mamitu du, 1999ko apiriletik 2000ko martxora bitarteko Urteko Lan Programaren barne.

Mankomunitatearen jardueraren diagnosi-analisia egitea izan da lana, eta proba laburtuak aplikatu dira azterketa horretan, bai eremuari zein hedadurari dagokienez. Hona hemen aztertu ditugun alorrak:

- antolaketa orokorra
- aurrekontuaren eta kontularitzaren kontrola
- sarreren kudeaketa eta diru-bilketa
- langileen kudeaketa
- zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea.

Aplikatzekoa den lege-araudia bete den aztertzen da txostenaren I. partean, eta kontularitzako akatsak II.ean. Hurrengo, III.ak Mankomunitatearen finantzen analisia azaltzen du, eta IV.ak, azkenik, Mankomunitateak hobetu beharko lituzkeen kudeaketako beste alde batzuk garatzen ditu.

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Errezil eta Zestoa dira Urola Erdiko Mankomunitatea osatzen duten udalerriak, 28.777 biztanlerekin, eta zaborrak bildu, garraiatu, tratatu eta ezabatzea da Mankomunitateak ematen duen zerbitzua.



## ONDORIOAK

### I. LEGEZKOTASUNA BETETZEA

Sarreran azaldutako mugekin gauzatu dugun azterketan, honako alde nagusi hauek aurkitu ditugu:

#### Idazkaritza eta kontu-hartzailletza

- Kide diren udaletako funtzionarioek bete dituzte kontu-hartzailletzako lanak 1998ko abendura arte, eta idazkaritzakoak 1999ko martxora arte. Aipatutako egunetatik aurrera Mankomunitateko administrariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari batek bete dituzte zeregin horiek, gaikuntza nazionalako funtzionario izan gabe (Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 92.3. artikulua).

#### Aurrekontu eta kontularitzako araudia

- Aurrekontuan izendatu gabe egon arren 4,1 milioi pezetako pertsonaleko gastuak egin ziren 1999ko ekitaldian, aurrekontua aldatzeko beharrezkoa den espedientea izapidetu gabe (Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauko 20. artikulua.)
- Lehendakariaren sinadura bakarrik zutela egin ziren ordainketak 1999. urtean, nahiz eta arauak agindutako moduan erakundeko lehendakariaren, kontu-hartzailearen eta diruzainaren baterako sinadura behar izan (TEAFako 57.3. eta 67.2. artikulua).
- Bestalde, 1998 eta 1999ko ekitaldietako urteko kitapena eta kontuak onartzeke zeuden oraindik 2000ko uztailean, guk lan hau egin genuen egunean (TEAFako 49 eta 63. artikulua).

#### Funtzio publikoa.

- Ez da oraindik onartu Mankomunitatearen lanpostuen zerrenda (Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeko 13. artikulua).
- Aldi baterako langileak kontratatu zirenean, hain zuzen 1999an 4 lagunek 4,7 milioi pezetako lansariak jaso zituzten, derrigorrezkoa den deialdi publikoa egin gabe kontratatu ziren (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 25. artikulua). Horrez gain, kontratuak lehendakariak egin zituen, nahiz eta Mankomunitateko estatutuen arabera Zuzendaritza batzordearen eskumena izan hori.
- Mankomunitateko Zuzendaritza batzordeak 1999rako Efaletze aplikatzea erabaki zuen, 1998ko lansariari dagokionez %1,9ko gehikuntza ezarriz; horrela, hautsi egin zen Estatuko 1999ko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoa, ezin baitzen %1,8 baino gehiagoko igoerarik egin (49/98 Legeko 20. artikulua).



### Kontratazioa.

Hiru kontratu aztertu ditugu, beren zenbatekoari kontratazio publikoaren araudia ezar dakiokelako. Hauek dira ikusitako ez-betetzeak (A1 eranskina ikusi):

- Bi kontratu, ontzi arinak eta papera eta kartoia biltzeko egindakoak, lehiaketa-prozesurik gabe eta legez eskatutako betekizun formalak (orri teknikoak, administrazio baldintzak, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean daudela dioen ziurtagiria, eta abar), albora utzita hautatutako bi enpresek bete dituzte, eta bien artean 1999an 7,7 milioi pezetako kostua izan dute (Administrazio Publikoen Kontratuen 13/95 Legeko 11.1., 11.2. eta 20.f. artikulua).

## II. KONTULARITZAKO ALDERDIAK

Sarrerako atalean azaldutako hedadurarekin gauzatu dugu gure azterketa, eta ez dugu salbuespen nabaririk aurkitu.

## III. FINANTZEN ANALISIA


FINANTZEN ANALISIA	Milioika pezeta			
	96	97	98	99
Diru-sarrerak (3. kap.): Lapatzeko zabort. ....	11	-	-	-
Diru-sarrerak (4. kap.): udalen ekarpenak .....	44	48	49	98
<b>A. Diru-sarrera arruntak</b>	<b>55</b>	<b>48</b>	<b>49</b>	<b>98</b>
Pertsonaleko gastuak .....	24	23	21	27
Ondasunak eta zerbitzuak erostea.....	25	17	20	71
<b>B. Funtzionamendu-gastuak</b>	<b>49</b>	<b>40</b>	<b>41</b>	<b>98</b>
<b>Aurrezki gordina (A - B)</b>	<b>6</b>	<b>8</b>	<b>8</b>	<b>0</b>
Finantza-gastuak (3. kap.).....	1	1	-	-
<b>Emitza arrunta</b>	<b>5</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>0</b>
Jasotako kapital-dirulaguntzak	2	-	-	-
Inbertsioak	2	-	-	-
Diruzaintzako gerakina abenduaren 31n	4	8	13	5
Zorpetzea abenduaren 31n	8	5	2	-

Ohiz kanpokoa da diru-sarrera eta gastu arruntek 1999an izan duten gehikuntza, Lapatzeko zabortegiko sozietate publiko kudeatzailearekin hitzarmena izenpetu delako sortu baita, bertan zaborrak uzteagatik Mankomunitateak hari ordaindu behar dio-eta. Kitapena 40 milioi pezetakoa da, eta egunean jartzen ditu 1997-99 urteetako ekitaldiak. Ordainetan, Mankomunitateko udalek ekarpen handiagoak egin behar izan dituzte.

Pertsonaleko gastuak gehitu egin dira 1999an, langile finkoei lansaritan 2,4 milioi pezetako atzerapenak ordaindu zaizkielako, eta aldi baterako langile gehiago kontratatu direlako.

ERAGIKETA ARRUNTEN BILAKAERA

Milioika PTA.



#### IV. KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK ALDERDI OROKORRAK

Urola Erdiko Mankomunitateko udalerrien artean tirabirak eta desadostasunak sortzen dituzten bi arazo atzeman ditugu:

- Lapatzeko zabortegiaren titulartasuna: Azpeitiko Udalaren izenean ageri da erregistroan, bera izan baitzen erosi zuena, nahiz eta erosketako kostuak Mankomunitateko udal guztien artean banatu aurrez erabaki zen moduan (1988an Mankomunitatea eratu aurretik egin zuten ekarpena udal batzuk, eta gainerakoei ondoren egotzi zitzaizen kostuaren parte).

Azpeitiko Udalak 1994an bere aldetik erabaki zuen beste udalei haiek ekarritako kopuruak itzultzea, eta 1997an udal-sozietate bat sortu zuen zabortegia kudeatzeko, Mankomunitatearen ordez bera jarritz. Akordio horien kontra errekurtsuak jarri dituzte Mankomunitateko bost udalek.

- Ordezkaritza-tasak: indarrean dauden estatutuen arabera, Mankomunitateko udal guztiek partaidetza berdina dute erabakiak hartzeko orduan, bakoitzaren neurria kontuan hartu gabe (Azpeitiko Udalak %44,5ean hartzen du parte gastuetan, eta Azkoitikoak %34,5ean).



## KONTRATAZIOA ETA GASTUAK

Kontratuetakoa arauari lotuta dauden gastuez gain, badira itxurazko beste batzuk ere, esaterako, ibilgailuen mantenimendua, gasolina eta aseguruak, inolako prozedura formalik gabe egiten direnak.

Ondo legoke Zuzendaritza batzordeak gastu txikien kudeaketa antolatuko balu, eskaintza bat baino gehiago eskatuz, edo Mankomunitateko udaletakoren batek lortutako baldintzetara atxikiz bera ere.

Zaborrak batzeko kontratua 10 urterako da, eta urtero gehitzen zaio KPI, aldaketa horren berri inon jaso gabe.

Aipatutako aldaketa horri forma eman behar zaio berariazko akordio baten bidez, prezioak aldatzeko baldintzak zuzen aplikatu direla justifikatzeko.

## BESTE ALDERDI BATZUK

- 1999ko ekitaldiko aurrekontua 1999ko otsailaren 19an onartu zen, nahiz eta arauetan agindutakoaren arabera ekitaldia hasi aurretik onartu behar.
- 1999ko ekitaldiko kitapenean ez dira jaso abenduko gastuetako 0,9 milioi pezeta.
- Mankomunitateko Zuzendaritza batzordeak 1991n lortutako akordioaren arabera, ekarpenak ordaintzen atzeratzen ziren udalerriei %12ko berandutzeagatik interesak ezarri behar zitzaizkien. Aipatutako erabaki hori ez zitzaion aplikatu Azpeitiko Udalari bere ekarpenak ordaintzea geldituta izan bazuen ere, eta arazo dezente sortu zizkion erakundearen diruzaintzari.



## INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/TVCP, conforme a lo establecido en la Ley 1/88, reguladora del mismo, ha realizado este informe sobre la actividad económico-financiera de la Mancomunidad de Urola Medio en el ejercicio 1999, incluido en el Programa Anual de Trabajo abril 1999-marzo 2000.

El trabajo realizado ha consistido en un análisis diagnóstico de la actividad de la Mancomunidad, tipo de revisión en la que aplicamos pruebas limitadas tanto en su extensión como en sus alcances. Las áreas analizadas han sido las siguientes:

- organización general
- control presupuestario y contable
- gestión de ingresos y recaudación
- gestión de personal
- contratación de servicios y de suministros.

El cumplimiento de la normativa legal aplicable se analiza en el epígrafe I, y en el II las deficiencias de tipo contable. A continuación, el epígrafe III presenta un análisis financiero de la Mancomunidad, y el IV desarrolla otros aspectos de la gestión de la misma que deberían ser mejorados.

La Mancomunidad de Urola Medio está integrada por los municipios de Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Errezil y Zestoa, con una población total de 28.777 habitantes, y presta los servicios de recogida, transporte, tratamiento y eliminación de basuras.



## CONCLUSIONES

### I. CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción, se han detectado los siguientes aspectos significativos:

#### Secretaría e intervención

- Las funciones de intervención y secretaría eran prestadas, hasta diciembre de 1998 y marzo de 1999 respectivamente, por funcionarios de los ayuntamientos miembros. A partir de esa fecha son desarrolladas por el administrativo de la Mancomunidad y un técnico de la Diputación Foral, que no son funcionarios de habilitación nacional (art. 92.3 de la Ley 7/85 reguladora de las Bases de Régimen Local).

#### Normativa presupuestaria y contable

- En el ejercicio 1999 se contrajeron gastos de personal sin consignación presupuestaria por 4,1 millones de ptas, sin tramitar el preceptivo expediente de modificación del Presupuesto (art. 20 de la Norma Foral Presupuestaria de las Entidades Locales-NFPEL).
- Durante 1999 los pagos se realizaron con la única firma del Presidente, a pesar de que la normativa exige la firma mancomunada del Presidente, Interventor y Tesorero de la entidad (art. 57.3 y 67.2 de la NFPEL).
- La Liquidación y cuentas anuales correspondientes a los ejercicios 1998 y 1999 se encuentran pendientes de aprobar en julio de 2000, fecha de realización de nuestro trabajo (arts. 49 y 63 de la NFPEL).

#### Función pública

- La Relación de Puestos de Trabajo/RPT de la Mancomunidad no ha sido aprobada (art. 13 de la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca/LFPV).
- Las contrataciones temporales de trabajadores, 4 personas que percibieron retribuciones por 4,7 millones durante 1999, se realizaron sin la preceptiva convocatoria pública (art. 25 de la LFPV). Además, su contratación fue realizada por el Presidente, a pesar de que los Estatutos de la Mancomunidad reservan esta competencia a la Junta Rectora.
- La Junta Rectora de la Mancomunidad aprobó la aplicación para 1999 del Arcepafe, con un incremento respecto de 1998 del 1,9%, incumpliendo la Ley de Presupuestos Generales del Estado para 1999 que establece que las retribuciones de ese año no debían experimentar un incremento superior al 1,8% (art. 20 de la Ley 49/98).



## Contratación

Hemos revisado los tres contratos cuyo importe hacía aplicable la normativa de contratación pública, detectando los siguientes incumplimientos (ver anexo A1):

- Dos contratos, los de recogida de envases ligeros y de papel/cartón, con un coste conjunto en 1999 de 7,7 millones de ptas, fueron prestados por dos empresas seleccionadas sin un proceso concurrencial y sin cumplimentar los requisitos formales legalmente exigibles (pliego técnico, condiciones administrativas, certificación de estar al día con Hacienda Foral y con la Seguridad Social, etc.) (arts. 11.1, 11.2 y 20.f de la Ley 13/95 de Contratos de las Administraciones Públicas/LCAP).

## II. ASPECTOS CONTABLES

En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción, no hemos detectado salvedades significativas.


## III. ANÁLISIS FINANCIERO

ANÁLISIS FINANCIERO	Millones de pesetas			
	96	97	98	99
Ingresos cap. 3: vertedero de Lapatx .....	11	-	-	-
Ingresos cap. 4: aportaciones ayuntamientos.....	44	48	49	98
<b>A. Ingresos corrientes</b>	<b>55</b>	<b>48</b>	<b>49</b>	<b>98</b>
Gastos de personal.....	24	23	21	27
Compras de bienes y servicios .....	25	17	20	71
<b>B. Gastos de funcionamiento</b>	<b>49</b>	<b>40</b>	<b>41</b>	<b>98</b>
<b>Ahorro bruto (A-B)</b>	<b>6</b>	<b>8</b>	<b>8</b>	<b>0</b>
Gastos financieros cap. 3 .....	1	1	-	-
<b>Resultado corriente</b>	<b>5</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>0</b>
Subvenciones de capital recibidas	2	-	-	-
Inversiones	2	-	-	-
Remanente de Tesorería al 31-12	4	8	13	5
Endeudamiento al 31-12	8	5	2	-

El incremento en 1999 de los ingresos y gastos corrientes tiene un carácter extraordinario, ya que se origina en la firma de un convenio con la sociedad pública gestora del vertedero de Lapatx, por el que la Mancomunidad debe pagar por depositar la basura en el mismo. La liquidación asciende a 40 millones de ptas y regulariza los ejercicios 1997-99, habiendo tenido como contrapartida mayores aportaciones de los ayuntamientos miembros.

El incremento de los gastos de personal en 1999 se motiva en el pago de atrasos salariales del personal fijo, por 2,4 millones de ptas, y en el mayor recurso a la contratación de personal temporal.

EVOLUCIÓN DE LAS OPERACIONES CORRIENTES Millones-ptas.



#### IV. ASPECTOS DE GESTIÓN Y RECOMENDACIONES

##### ASPECTOS GENERALES

Existen dos problemas que provocan tensiones y desavenencias entre los municipios que componen la Mancomunidad del Urola Medio:

- La titularidad del vertedero de Lapatx: está registrado a nombre del ayuntamiento de Azpeitia que fue quien lo adquirió, aunque el coste de la compra se repartió entre los ayuntamientos mancomunados tal y como se había acordado previamente (algunos ayuntamientos hicieron su aportación antes de la constitución de la Mancomunidad en 1988, y a los restantes el coste les fue repercutido posteriormente).

En 1994 el ayuntamiento de Azpeitia decidió unilateralmente devolver las cantidades aportadas por los demás ayuntamientos, y en 1997 creó una sociedad municipal para su gestión, sustituyendo en la misma a la Mancomunidad. Estos acuerdos han sido recurridos por cinco de los ayuntamientos mancomunados.

- Los índices de representación: los estatutos vigentes establecen la participación igualitaria de todos los ayuntamientos mancomunados en las decisiones, independientemente de su tamaño (la participación en gastos del ayuntamiento de Azpeitia es el 44,5%, y del de Azkoitia el 34,5%).



## CONTRATACIÓN Y GASTOS

Además de los gastos sujetos a la normativa de contratación hay otros de cierta cuantía, como el mantenimiento de vehículos, gasolina y seguros, que se realizan sin ningún procedimiento formal.

Convendría que la Junta Rectora regulara la gestión de los gastos menores, solicitando varias ofertas, o adhiriéndose a las condiciones conseguidas por alguno de los ayuntamientos mancomunados.

El contrato de recogida de basura, con una duración de 10 años, se incrementa anualmente en el IPC sin dejar constancia formal de esta modificación.

Formalizar la modificación con un acuerdo expreso, justificando que se aplican correctamente las cláusulas de revisión de precios.

## OTROS ASPECTOS

- El presupuesto del ejercicio 1999 fue aprobado el 19 de febrero de 1999, cuando la normativa prevé su aprobación antes del inicio del ejercicio.
- La liquidación correspondiente al ejercicio 1999 no incluye 0,9 millones de ptas de gastos del mes de diciembre.
- La Junta Rectora de la Mancomunidad acordó en 1991 que a los municipios que se demoraran en el pago de sus aportaciones se les aplicaría un interés de demora del 12%. Esta previsión no se ha aplicado al ayuntamiento de Azpeitia a pesar de que retuvo el pago de sus aportaciones, motivando importantes trastornos en la tesorería de la entidad.



## ANEXOS

### A.1 ANÁLISIS DE LA CONTRATACIÓN

#### NORMATIVA APLICABLE A LA CONTRATACIÓN LOCAL

Ley 7/85	Reguladora de las Bases de Régimen Local /LRBRL
RD Leg. 781/86	Disposiciones Legales Vigentes en Materia de Régimen Local
Ley 13/95	Contratos de las Administraciones Públicas/LCAP
Decr. 3410/75	Reglamento General de Contratación del Estado (y disp. modif.)
Decr. 1005/74	Contratos de Asistencia con Empresas Consultoras o de Servicios
R. Decr. 2757/85	Contratación de Trabajos Específicos y Concretos No Habituales

La LCAP exige de los requisitos de publicidad y concurrencia a los denominados contratos menores, que son las obras de coste inferior a 5 millones de ptas, y los suministros y asistencias técnicas de menos de 2 millones de ptas (arts. 57, 121, 177 y 202).

Durante 1999 solo se han superado en cuatro contratos los límites cuantitativos antes citados:

Objeto	___ Importes ___		Adjudicación		
	Adjudic.	Oblig.99	Sistema	Fecha	Deficiencia
Depósito de basura en vertedero de Lapatx.....	Pr. unitario	40,0	convenio	marzo 99	
Servicio de recogida de basuras .....	Pr. unitario	11,0	concurso	marzo 90	C
Servicio de recogida de envases ligeros (enero-octubre) .....	No consta	2,4	sin concurrencia	no consta	A B
Servicio de recogida de papel/cartón y envases (desde nov.).	No consta	5,0	sin concurrencia	no consta	A B
<b>Total</b>		<b>58,4</b>			

Deficiencias A: adjudicación sin concurrencia (art. 11.1 LCAP)

B: tramitación sin pliego admin., ni presupuesto/pliego técnico, ni certif. Hacienda (arts. 11.2, 20.f LCAP)

C: revisión de precios no formalizada



## A.2. CUENTAS ANUALES Y PLANTILLA

A. LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 1999							Millones-ptas.
INGRESOS	___Presupuesto___			Dchos.	Cobros	Pdtes.	Ejec.
	Inicial	Modif.	Defin.	Obligs.	Pagos		
4.- Transf. y subvenciones corrientes.....	99	-	99	98	91	7	99%
<b>INGRESOS</b>	<b>99</b>	<b>-</b>	<b>99</b>	<b>98</b>	<b>91</b>	<b>7</b>	<b>99%</b>
<b>GASTOS</b>							
1.- Gastos de personal.....	23	-	23	27	25	2	117%
2.- Compra bienes y servicios.....	72	-	72	71	65	6	99%
3.- Gastos financieros.....	1	-	1	-	-	-	-
6.- Inversiones.....	1	-	1	-	-	-	-
9.- Variación de pasivos financieros.....	2	-	2	2	2	-	100%
<b>GASTOS</b>	<b>99</b>	<b>-</b>	<b>99</b>	<b>100</b>	<b>92</b>	<b>8</b>	<b>101%</b>
<b>INGRESOS – GASTOS</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(2)</b>	<b>(1)</b>	<b>(1)</b>	

B. VARIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS CERRADOS					Millones-ptas.
	Pdte.		Cobros/ Pagos	Pdte. final	
	inicial	Anulac.			
Deudores, ejercicios cerrados.....	26	6	19	1	
Acreedores, ejercicios cerrados.....	11	-	11	-	
<b>PRESUPUESTOS CERRADOS</b>	<b>15</b>	<b>6</b>	<b>8</b>	<b>1</b>	



<u>C. RESULTADO PRESUPUESTARIO</u>	<u>Millones-ptas.</u>
Derechos liquidados .....	98
- Obligaciones reconocidas .....	(100)
- Anulaciones de deudores en pptos cerrados .....	(6)
Anulaciones de acreedores en pptos cerrados .....	-
<b>RESULTADO PRESUPUESTARIO</b>	<b>(8)</b>

<u>D. REMANENTE DE TESORERÍA</u>	<u>Millones-ptas.</u>
Remanente de tesorería a 1.1.99 .....	13
Resultado pptario 1999 .....	(8)
- Variación de la provisión insolvencias.....	-
<b>REMANENTE TESORERÍA A 31.12.99</b>	<b>5</b>
Tesorería. ....	8
Deudores presupuestarios.....	8
Deudores extrapresupuestarios .....	1
Pagos pendientes de aplicación .....	1
Provisión para insolvencias.....	(1)
Acreedores presupuestarios .....	(8)
Acreedores extrapresupuestarios.....	(4)
<b>REMANENTE TESORERIA A 31.12.99</b>	<b>5</b>

<u>E. PERSONAL</u>	<u>Nº-personas</u>	
Puesto de trabajo	Laborales	
	Grupo	fijos
Administrativo .....	B	1
Chófer de camión .....	D	1
Recogedor de basuras.....	E	2
<b>Total</b>		<b>4</b>